# INFORMAZIOAK
# INFORMACIONES

## LEGEBILTZARREKO ORGANOEN ERABAKIAK ETA KOMUNIKAZIOAK
## ACUERDOS Y COMUNICACIONES DE LOS ÓRGANOS PARLAMENTARIOS

### *COVID-19aren prebentziorako jarduera plana, langileak Eusko Legebiltzarrera lanera itzultzen direnerako*

Diputazio Iraunkorreko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 7ko bileran agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila jarduera plana.

**Diputazio Iraunkorreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**COVID-19AREN PREBENTZIORAKO JARDUERA PLANA, LANGILEAK EUSKO LEGEBILTZARRERA LANERA ITZULTZEN DIRENERAKO**

COVID-19ak eragindako pandemiaren aurrean, ikusita lehendakariak 2020ko martxoaren 13an hartutako osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioa eta Estatuko Gobernuak 2020ko martxoaren 14an egindako alarma-egoeraren adierazpena (463/2020 Errege Dekretua), Diputazio Iraunkorreko Mahaiak, 2020ko martxoaren 11ko eta 16ko akordioen bidez, zenbait neurri ezarri zituen osasun-krisialdi horri aurre egiteko kontingentzia-planaren barruan.

Eusko Legebiltzarraren instalazioetara bertaratzea eskatzen duen jarduerara mailaka itzuliko denez, Diputazio Iraunkorreko Mahaiak ezartzen duen egunetik aurrera beharrezkoa da irizpide batzuk ezartzea, langileak lanean hasteko, langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeari begira. Jarduera-planarekin batera kontingentzia-plan bat dago, SARS-CoV-2 koronabirusarekiko esposizio-arriskuari buruzkoa, Legebiltzarreko zerbitzuek eta Eusko Legebiltzarreko Laneko Prebentzio eta Osasun Zerbitzuarekin egindakoa. (IMQ-prebentzioa).

Nola jarduera-plana hala kontingentzia-plana dinamikoak dira eta osasun-larrialdiko egoeraren bilakaeraren arabera egokituko dira.

**LEHENENGOA. Xedapen orokorra**

1. Eusko Legebiltzarraren eraikin eta instalazioak berriz irekiko dira, hurrengo apartatuetan aurreikusitako prozeduraren arabera.

2. Lan presentzialera itzultzeko ezarritako kronogramaren arabera bueltatuko dira

### *Plan de actuación en la reincorporación presencial del personal al Parlamento Vasco para la prevención de la COVID-19*

La Mesa de la Diputación Permanente, en su reunión del día 7 de mayo de 2020, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del plan de actuación.

**La presidenta de la Diputación Permanente**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**PLAN DE ACTUACIÓN EN LA REINCORPORACIÓN PRESENCIAL DEL PERSONAL AL PARLAMENTO VASCO PARA LA PREVENCIÓN DE LA COVID-19**

Ante la pandemia generada por la COVID-19 y a la vista de la declaración de situación de emergencia sanitaria adoptada el pasado 13 de marzo de 2020 por el lehendakari, así como la declaración de estado de alarma hecha por el Gobierno del Estado el 14 de marzo de 2020 (RD 463/2020), la Mesa de la Diputación Permanente, mediante los acuerdos de 11 y 16 de marzo de 2020, estableció una serie de medidas dentro del plan de contingencia para hacer frente a dicha situación de crisis sanitaria.

Dentro del regreso escalonado a la actividad presencial en las instalaciones del Parlamento Vasco y a partir de la fecha que se fije por la Mesa de la Diputación Permanente, es preciso establecer una serie de directrices que han de regir dicha incorporación garantizando la seguridad y la salud de los trabajadores. Junto con el plan de actuación se encuentra el Plan de Contingencia por Riesgo de Exposición a Coronavirus SARS-CoV-2 elaborado por los servicios del Parlamento con el Servicio de Prevención y Salud Laboral del Parlamento Vasco. (IMQ-prevención).

Tanto el plan de actuación como el plan de contingencia tienen un carácter dinámico y se irán adecuando en función de la evolución de la situación de la emergencia sanitaria.

**PRIMERO. Disposición general**

1. Se procede a la reapertura de los edificios e instalaciones del Parlamento Vasco, conforme al procedimiento previsto en los apartados siguientes.

2. La incorporación del personal funcionario autorizado se realizará siguiendo el

funtzionario baimenduak beren lanpostuetara, baita ekitaldi parlamentarioak egiteko ezinbestekoak direnak ere (Diputazio Iraunkorreko Mahaiaren bilerak eta Diputazio Iraunkorraren bilkurak).

cronograma establecido para la reincorporación presencial, así como de aquel que resulte imprescindible para la celebración de los actos de índole parlamentaria (reuniones de la Mesa de la Diputación Permanente y sesiones de la Diputación Permanente).

3. Enpresak eta hornitzaileak Eusko Legebiltzarrera sartu ahal izateko kontratatutako obrak eta zerbitzuak egitera, aldez aurretik baimendu eta enpresa horiek COVID-19tik babesteko ezarrita duten protokoloa ezagutu eta ikuskatu beharko da.

3. El acceso al Parlamento Vasco de las empresas y proveedores para la prestación de las obras y servicios contratados se llevará a cabo previa autorización, conocimiento y supervisión del protocolo que tengan establecido dichas empresas para la protección ante la COVID-19.

BIGARRENA. Lanera itzultzea

1. Lan presentzialera itzultzea progresiboa izango da, eta Diputazio Iraunkorreko Mahaiak ezartzen duen jarduera parlamentarioaren dimentsiora egokituko da. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira ezartzen diren lan presentzialerako ordutegiak eta erabilgarri dauden eta osasun arloko agintariek pertsonen arteko distantziei buruz ezarritako eskakizunak betetzen dituzten Legebiltzarreko espazioak. (2 metro).

2. Horretarako, gutxieneko lanpostu-kopurua ezarriko da dei daitezkeen organo parlamentarioen bilkurak egin ahal izateko eta administrazio-zerbitzu eta -unitate guztien funtzionamendua bermatu ahal izateko.

3. Maiatzaren 11n hasiko den lehenengo fasean, instalazioak COVID-19tik babesteko beharrezkoak diren laneko segurtasun- eta osasun-eskakizunetara egokitzeko ardura duten zerbitzuetako langileak sartuko dira, eta Administrazio parlamentarioko zuzendariak ere.

SEGUNDO. Reincorporación al trabajo

1. La reincorporación al trabajo presencial será progresiva y adecuada a la dimensión de la actividad parlamentaria que establezca la Mesa de la Diputación Permanente. En todo caso, se deberá tener en cuenta los horarios de trabajo presencial que se establezcan y los espacios parlamentarios que estén disponibles y cumplan con las exigencias de distancias de separación entre personas establecidas por las autoridades sanitarias (2 metros).

2. A tal efecto, se establecerá la dotación mínima de puestos de trabajo que permitan garantizar la realización de las sesiones de órganos parlamentarios que puedan convocarse y el funcionamiento de todos los servicios y unidades administrativas.

3. En la primera fase, que se inicia el 11 de mayo, se incorporará el personal correspondiente a los servicios encargados de adecuar las instalaciones a los requerimientos de seguridad y salud laboral necesarios para protección del COVID-19 y el personal directivo de la Administración parlamentaria.

HIRUGARRENA. Telelana

1. Legelari nagusiak, dagokion administrazio-unitateko zuzendariak edo buruak proposatuta, baimena eman ahal izango du lanaldi osoz edo partzialez telelana egiteko, baldin lanpostuen izaerak eta eginkizunek horretarako aukera ematen badute eta lanpostuen titularrek lana modu ez-presentzialean egiteko behar diren aplikazio eta tresna informatikoak badituzte.

2. Telelana aplikatzeko garaian, kontuan hartuko dira zuzendarien proposamenak, lanpostuen eginkizunen azterketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritzaren irizpideen arabera dauden aukerak.

TERCERO. Teletrabajo

1. El letrado mayor, a propuesta de la dirección o jefatura de la unidad administrativa correspondiente, podrá autorizar total o parcialmente la realización de teletrabajo, cuando la naturaleza y las funciones de los puestos de trabajo lo permitan y las personas titulares de los mismos dispongan de las aplicaciones y herramientas informáticas necesarias para desarrollar el trabajo en forma no presencial.

2. Para la aplicación del teletrabajo se tendrán en cuenta las propuestas de las directoras y directores, atendiendo al análisis de las funciones de los puestos de trabajo y las posibilidades existentes conforme a los criterios de la Dirección de Sistemas de la Información.

3. Telelanari dagokionez lehentasun-irizpide batzuk ezartzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: (i) osasun-agintariek unean-unean COVID-19rako talde kaltebera gisa sailkatutako kolektiboetako langileak (diabetesa; gaixotasun kardiobaskularra, hipertentsioa barne; biriketako gaixotasun kronikoa; immunoeskasia; tratamendu aktiboko fasean dagoen minbizia; haurdun dauden emakumeak; 60 urtetik gorakoak); (ii) adingabeak edo mendekotasuna duten adinekoak zaintzeko ardura duten langileak; (iii) Arabako Lurralde Historikotik kanpo bizi diren langileei.

3. A fin de establecer unas criterios de prioridad en relación con el teletrabajo, se tendrá en cuenta: (i) al personal de colectivos clasificados en cada momento por las autoridades sanitarias como grupos vulnerables para la COVID-19 (diabetes; enfermedad cardiovascular, incluida la hipertensión; enfermedad pulmonar crónica; inmunodeficiencia; cáncer en fase de tratamiento activo; mujeres embarazadas; mayor de 60 años); (ii) al personal con responsabilidades en el cuidado de menores de edad o de personas mayores dependientes; (iii) al personal con residencia fuera del Territorio Histórico de Álava.

4. Lehen fase honetan, gaur egun telelana onartuta duten funtzionarioek ez dute modalitate hori erregulatzen duen arautegian aurreikusitako lanaldi presentziala egin beharrik izango. Egoera bera aplikatuko zaie krisi-egoera honetan Eusko Legebiltzarreko programetan eta aplikazioetan VPNren bidez sartzeko modua eta ekipamendua eman zaizkien langileei.

4. En esta primera fase, el personal funcionario que en la actualidad tiene concedido el teletrabajo realizará la prestación del servicio sin necesidad de realizar la jornada presencial prevista en la normativa reguladora de dicha modalidad. Idéntica situación se aplicará al personal al que durante esta situación de crisis se le ha dotado del equipamiento y acceso a los programas y aplicaciones del Parlamento Vasco a través de VPN.

## LAUGARRENA. Lan presentziala

1. Lantokira joaten diren langileen kopurua mugatua izan beharko da, pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia bi metrokoa izango dela bermatzeko moduan, eta ezin izango da inola ere gainditu unitate bakoitzeko langileen % 50a aldi berean batera egotea. Horri begira, administrazio-zerbitzu edo -unitate bakoitzean asteko txandak antolatu beharko dira. Lan-txandak egiteko garaian, zerbitzua betetzen dela bermatuko da, txanda bakoitzean gutxienez pertsona bat eta gehienez bi pertsona jarriz.

2. Legebiltzarrera joan behar ez den txandetan, telelaneko erregimenean beteko dira eginkizunak, ahal denean. Telelana egitea ezinezkoa den kasuetan, langileak lokalizatzeko moduan egon beharko dira, telefonoari eta posta elektronikoari erantzunez ohiko lan-ordutegiaren barruan, eta beren lanpostu presentzialetara itzuli beharko dira zerbitzuaren ezohiko premiengatik beharrezkoa bada.

3. Dagozkion administrazio-zerbitzu edo -unitateetako zuzendariek eta buruek legelari nagusiari aurkeztu ahal izango dizkiote horretarako egokitzat jotzen dituzten proposamenak, eta proposamen horiek arrazoituta ebatziko dira, eta Langileen Batzordeari horren berri emango zaio.

## CUARTO. Trabajo presencial

1. El personal que acuda al centro de trabajo deberá ver limitado su número de tal manera que se garantice la distancia de seguridad mínima entre personas, de dos metros, no pudiendo superarse en ningún caso la presencia simultánea del 50 % del personal en cada unidad, debiendo adoptarse medidas de organización de turnos semanales en cada servicio o unidad administrativa. Para la realización de turnos de trabajo se atenderá a que el servicio esté cubierto, con un mínimo de una persona y un máximo de dos personas por turno.

2. Durante los turnos en los que no se permanezca en la sede parlamentaria, se realizarán las funciones en régimen de teletrabajo, cuando ello sea posible. En aquellos casos en que el teletrabajo no sea posible, el personal deberá permanecer localizable, atendiendo el teléfono y el correo electrónico, en su caso, dentro del horario de trabajo habitual, y deberán reincorporarse a sus puestos de trabajo presenciales si así se requiere por necesidades excepcionales del servicio.

3. Las direcciones y jefaturas de los servicios o unidades administrativas correspondientes, podrán elevar al letrado mayor las propuestas que, a tal efecto, estimen convenientes, las cuales serán resueltas motivadamente, dando cuenta a la Junta de Personal.

4. Behin-behineko langileak izaera parlamentarioko jardueretara soilik joango dira, lan presentziala egiteko lantokira doazen langileentzat ezarritako baldintza berekin.

4. La asistencia del personal eventual quedará limitada exclusivamente a aquellas actividades de carácter parlamentario y sometida a las mismas condiciones establecidas para el personal que acuda al centro de trabajo con carácter presencial.

**BOSGARRENA. Lanaldia**

1. Osasun-larrialdiko krisiak sortutako egoera eta hartutako neurriak direla-eta, 2020ko lan-egutegia egokituko da urteko lanaldiari, lanegunei, opor-txandei, baimen-txandei eta norberak hartzeko egunei dagokienez, Langileen Batzordearekin negoziatu ondoren.

2. Lehenengo fase horretan, 6 ordu eta 30 minutuko lanaldi jarraitua ezarriko da, ordu bateko malgutasunarekin sartzeko eta irtetzeko garaian. Nolanahi ere, egun batzuetan, jarduera parlamentarioa dela-eta, lanpostura doazen langileak bertan geratu beharko dira gehieneko irteera-ordutik aurrera. Edonola ere, arratsaldeko txanda eten egingo da hala esleituta duten lanpostuetan.

3. Ordu-kontrolaren ondorioetarako, telelanean lan egiten duten pertsonei bitarteko telematikoen bidez sartzeko aukera emango zaie.

**QUINTO. Jornada laboral**

1. Como consecuencia de la situación generada por la crisis de emergencia sanitaria y las medidas adoptadas, se procederá a una adecuación del calendario laboral de 2020 en relación con la jornada anual, días laborables, turnos de vacaciones, turnos de permisos, días de libre disposición, previa negociación con la Junta de Personal.

2. Durante esta primera fase se establecerá una jornada laboral continuada de 6:30 minutos, con una flexibilidad horaria de 1 hora tanto a la entrada como a la salida, sin perjuicio de los días que por causa de la actividad parlamentaria el personal que acuda al puesto de trabajo deba alargar su presencia más allá de la hora máxima de salida. En todo caso, se suspende, en los puestos que así lo tengan asignado, el turno de tarde.

3. A efectos del control horario, para las personas en teletrabajo se facilitará su acceso a través de medios teléматicos.

**SEIGARRENA. Lantokian bete beharreko jarraibideak**

1. Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko, SARS-CoV-2 koronabirusarekiko esposizio-arriskuarengatiko kontingentzia-planean jasotako jarraibideak bete beharko dira.

2. Nolanahi ere, jarduteko jarraibide hauek bete beharko dira:

   a) Maskarak une oro erabiltzea partekatutako lan-eremuetan. Langileen eskura jarriko dira.

   b) Lan-arlo guztietan eskuragarri jarriko diren desinfekzio-gela eta papera erabiltzea.

   c) Ezein kasutan, bi pertsonak ezingo dute ekipo informatiko indibidual bera erabili.

   d) Ekipamendu komunak, inprimagailuak, telefonoak eta abar, banaka erabiltzen saiatu behar da, erabili aurretik eta ondoren garbituz. Horretarako, ekipo horien ondoan egongo den desinfekziorako gela eta papera erabiliko dira.

**SEXTO. Pautas en el centro de trabajo**

1. A efectos de garantizar la seguridad y la salud del personal se deberán observar las directrices recogidas en el Plan de contingencia por riesgo de exposición a coronavirus SARS-CoV-2.

2. En todo caso, se deberán observar las siguientes pautas de actuación:

   a) Utilizar la mascarilla, que se pondrá a disposición de los trabajadores, en todo momento en los espacios de trabajo compartidos.

   b) Utilizar el gel de desinfección y papel que se pondrá a disposición en todas las áreas de trabajo.

   c) En ningún caso podrá utilizarse un equipo informático individual por dos personas.

   d) Con los equipos comunes, impresoras, teléfonos, etc., se intentará su uso individual, limpiándose antes y después de su uso, debiendo utilizarse el gel y papel para la desinfección que se situará junto a esos equipos.

e) Automatikoki irekitzekoak ez diren ateen kasuan, erregulartasunez garbitu beharko dira eskuekin ukitzen diren zatiak, alkohol-gela erabiliz, eta ahal den guztietan irekita utziko dira.

f) Paperezko dokumentazioa pertsona batek baino gehiagok erabiltzen duenean, eskuak garbitu edo alkohol-gela erabili beharko da erabili ondoren. Era berean, barneko postan paperen zirkulazioa murriztu edo saihestu beharko da, eta dokumentuak eskaneatuz bidali beharko dira, birusa transmititzeko arrisku handia baitute paperezko dokumentazioak eta barneko postarako gutun-azal eta karpeta berrerabilgarriek.

g) Ez da erregistratuko paperezko euskarririk duen dokumenturik. Hori dela-eta, idazkia edo dokumentua bide elektronikoz bidaliko da Erregistro Orokorrera. Bestela egin ezin denean soilik onartuko dira paperezko euskarria duten dokumentuak.

h) Erabilera pertsonaleko artikuluak (katiluak, edalontziak, toallak, boligrafoak eta abar) partekatzea saihestuko da.

i) Maiztasunez aireztatu beharko dira bulegoak, aldagelak, eremu komunak eta abar.

j) Segurtasun-tarteak zaindu beharko dira fitxatzeko orduan eta erabilera komuneko beste leku batzuetara sartzeko garaian.

k) Ahal den neurrian, igogailuak erabiltzea saihestuko da, eta eskailerak erabili beharko dira Legebiltzarreko eraikinetako solairuetara iristeko. Igogailuak erabiliz gero, banaka erabili beharko dira.

l) Aldageletara txandaka sartu beharko da beti, segurtasun-tarteak errespetatuz, eta ezingo dira bi pertsona baino gehiago batera egon.

m) Bainugeletan bi pertsona baino gehiago egotea saihestu beharko da. Aldizka garbituko dira, garbiketa-enpresarekin ezartzen den prozeduraren arabera.

e) Aquellas puertas que no sean de apertura automática deberán limpiarse con regularidad en sus zonas de contacto con las manos con gel alcohol, manteniéndose abiertas cuando sea posible.

f) Cuando la documentación en formato papel sea usada por más de una persona las mismas deberán proceder al lavado de manos o uso de gel alcohol después de su uso, debiéndose asimismo reducir o evitar el tránsito de correo interno en formato papel y canalizarlo a través del escaneo de documentos, debido al elevado riesgo de transmisión del virus que puede haber a través de este canal y de los sobres y carpetas reutilizables del correo interno.

g) No se registrará ningún documento con soporte papel. A dichos efectos se remitirá al Registro General el escrito o documento por vía electrónica. Solo en el caso de que no pudiera hacerse de otra forma se admitirán documentos con soporte papel.

h) Se evitará compartir artículos de uso personal (tazas, vasos, toallas, bolígrafos, etc…).

i) Deberá ventilarse con frecuencia: oficinas, vestuarios, zonas comunes, etc.

j) Deberán observarse las distancias de seguridad en el acceso a los fichajes y otros lugares de uso común.

k) Se evitará, en la medida de lo posible, el uso de los ascensores debiéndose utilizar las escaleras para acceder a las diversas plantas de los edificios del Parlamento. En caso de uso de los ascensores se deberá hacer de forma individualizada.

l) El acceso a los vestuarios deberá hacerse en todo momento por turnos y respetando las distancias de seguridad, no debiendo haber más de dos personas a la vez.

m) En el uso de los baños deberá evitarse la presencia de más de dos personas. Se procederá a su limpieza de forma periódica conforme al procedimiento que se establezca con la empresa de limpieza.

**ZAZPIGARRENA. COVID-19 koronabirusaren positiboen edo berrogeialdiaren kasuan**

Baldin eta Ganberako langileren batek positibo emango balu edo berrogeialdia gorde beharko balu medikuek aginduta, bere-berehala emango zaie jakitera legelari nagusiari, Prebentzio Zerbitzuari eta Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzari eta, kasua hori bada, agintari sanitarioek gomendatzen dituzten neurriak hartuko dira.

Ondorio horietarako, SARS-CoV-2 koronabirusarekiko esposizio-arriskuarengatiko kontingentzia-planean aurreikusitakoa jarraituko da.

**ZORTZIGARRENA. Eraikinetako sarbidea eta segurtasuna**

1. Lehenengo fase honetan, lanpostua Legebiltzarraren egoitzan daukatenak eraikin horretako ate nagusitik sartu-irten ahal izango dira instalazioetara, eta lanpostua administrazio-eraikinean dutenak eraikin horretako atetik.

2. Lanpostura joateko baino ez dira sartuko, eta debekatuta egongo da gainerako instalazioetan ibiltzea, behar-beharrezkoa ez bada, behintzat. Komunikazioak telefonoz edo postaz bideratu beharko dira. Bi eraikinen arteko komunikazio presentzialerako, ahal den neurrian, barruko tunela saihestuko da.

3. Eraikinen barruko zirkulazio-ibilbideak ezarriko dira, korridoreak, eskaileren erabilera eta abar bereiztuta.

4. Eraikinetako sarbidea eta segurtasuna aplikatzekoa den eta Ertzaintzak eta segurtasun pribatuaren enpresak bete behar duten arriskuen kudeaketarako esparruaren arabera bermatuko da, zeina segurtasun-koordinatzaileak eguneratuko baitu. Nolanahi ere, segurtasun pribatuko enpresa 2020ko maiatzaren 11n hasiko da berriz lanean.

5. Komunikabide sozialetako pertsonak bitarteko telematikoen bidez bakarrik sartu ahal izango dira.

**BEDERATZIGARRENA. Kafetegia eta officea**

Lehen fase honetan itxita egongo dira kafetegi-zerbitzua eta officea.

**HAMARGARRENA. Baimenak**

Diputazio Iraunkorraren Mahaiak martxoaren 11n eta 16an onartutako neurrien babesean emandako baimenak apurka-apurka berrikusiko dira osasun-egoeraren bilakaeraren arabera, langileak lanera itzul daitezen, bai modu presentzialean, bai

**SÉPTIMO. Medidas en caso de positivos en coronavirus (COVID-19) o cuarentena**

En el supuesto de que algún trabajador o trabajadora de la Cámara diera positivo o tuviera que guardar cuarentena por prescripción facultativa, se dará cuenta inmediatamente al letrado mayor, al Servicio de Prevención y a la Dirección de Organización y Recursos Humanos y, en su caso, se adoptarán las medidas que se recomienden por las autoridades sanitarias.

A estos efectos se seguirá lo previsto en el Plan de contingencia por riesgo de exposición a coronavirus SARS-CoV-2.

**OCTAVO. Acceso y seguridad de los edificios**

1. En esta primera fase, el acceso a las instalaciones y salida se hará por la puerta principal de la sede por los que tengan su puesto de trabajo en dicho edificio y por la puerta del edificio administrativo para los que tengan su puesto de trabajo en dicho edificio.

2. El acceso será exclusivamente al puesto de trabajo, quedando prohibida la circulación por el resto de las instalaciones, salvo que ello sea estrictamente necesario, debiendo canalizar las comunicaciones vía telefónica o por correo. Para la comunicación presencial entre ambos edificios se evitará en la medida de lo posible el túnel de comunicación interna.

3. Se establecerán itinerarios internos de circulación por los edificios diferenciando los pasillos, el uso de las escaleras, etc.

4. La garantía del acceso y de la seguridad de los edificios se llevará acabo conforme al marco de gestión de riesgos aplicable y de cumplimiento por parte de la Ertzaintza y de la empresa de seguridad privada, actualizado por el coordinador de seguridad. En todo caso, la empresa de seguridad privada se incorporará a realizar sus tareas el 11 de mayo de 2020.

5. El acceso de los personas de los medios de comunicación social será exclusivamente por medios telemáticos.

**NOVENO. Cafetería y office**

En esta primera fase permanecerán cerrados el servicio de cafetería y el office.

**DÉCIMO. Permisos**

Los permisos concedidos al amparo de las medidas aprobadas por la Mesa de la Diputación Permanente el 11 y 16 de marzo, serán revisados de forma gradual según la evolución de la situación sanitaria, a fin de que el personal se reincorpore al

telelaneko formulen bidez.

**HAMAIKAGARRENA. Martxoaren 11n eta 16an onartutako neurriak aplikatzea eta epeen etendura bertan behera uztea**

1. Diputazio Iraunkorreko Mahaiaren martxoaren 11ko eta 16ko erabakietan jasotako xedapenak eta neurriak aplikatuko dira, jarduera-plan honetan eta SARS-CoV-2 koronabirusarekiko esposizio-arriskuarengatiko kontingentzia-planean xedatutakoaren arabera interpretatuta.

2. Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-2019ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arlokoak onartzen dituenak, "Sektore publikoko erakundeek alarma-egoera indarrean dagoen bitartean egindako kontratazio-prozeduren jarraipena eta hasiera" izeneko zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. zenbakian aurreikusitako ondorioetarako, erabakitzen da kentzea Eusko Legebiltzarrak sustatutako kontratazio-prozeduren epemugen etendura eta epeen geldiarazpena bitarteko elektronikoen bidez izapidetutako prozeduretan, 2020ko maiatzaren 7tik aurrerako ondorioekin. Halaber, zilegi izango da kontratazio-prozedura berriak hastea, haien tramitazioa ere bitarteko elektroniko horien bidez egiten bada.

3. Etenda jarraitzen dute egoitza taldeka bistatzeko jarduerek eta antzekoek, baita jarduera estraparlamentarioek ere, hala nola prestakuntza presentzialak, mintegiek, laneko bilerek kanpoko enpresekin eta abarrek.

**HAMABIGARRENA. Koordinazio-taldea**

Martxoaren 11ko akordioan aurreikusitako Koordinazio Taldearen osaera aldatu da, eta honako hauek izango dira taldeko kideak:

- Legelari nagusia
- Antolakuntza eta Giza Baliabideen zuzendaria
- Azterlanen zuzendaria
- Kudeaketa Parlamentarioko zuzendaria
- Informazio Sistemen zuzendaria
- Zerbitzu Ekonomikoetako burua
- Protokolo Ataleko burua
- Prentsa eta Komunikazio Ataleko burua
- Mantentze Ataleko burua
- Segurtasuneko koordinatzailea
- Langileen Batzordeko kide bat.

trabajo bien presencialmente, bien mediante fórmulas de teletrabajo.

**UNDÉCIMO. Aplicación de las medidas aprobadas el 11 y 16 de marzo y levantamiento de la suspensión de plazos**

1. Serán de aplicación las disposiciones y medidas contempladas en los acuerdos de la Mesa de la Diputación Permanente de 11 y 16 de marzo, interpretados conforme a lo dispuesto en el presente plan de actuación y en el Plan de contingencia por riesgo de exposición a coronavirus SARS-CoV-2.

2. De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional octava "continuación e inicio de los procedimientos de contratación celebrados por entidades del Sector Público durante la vigencia del estado de alarma", del Real Decreto Ley 17/2020, de 5 de mayo, por el que se aprueban medidas de apoyo al sector cultural y de carácter tributario para hacer frente al impacto económico y social del COVID-2019, a los efectos previstos en el apartado 4 de la disposición adicional tercera del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, con efectos desde el 7 de mayo de 2020, se acuerda el levantamiento de la suspensión de los términos e interrupción de los plazos de los procedimientos de contratación promovidos por el Parlamento Vasco, de los procedimientos tramitados por medios electrónicos. Igualmente, se permitirá el inicio de nuevos procedimientos de contratación cuya tramitación se lleve a cabo también por dichos medios electrónicos.

3. Se mantiene la suspensión de las actividades de visitas grupales a la sede y similares y de las actividades extraparlamentarias incluida la formación presencial, seminarios, reuniones de trabajo con empresas externas, etcétera.

**DUODÉCIMO. Grupo de coordinación**

Se modifica la composición del Grupo de Coordinación previsto en el acuerdo de 11 de marzo, que queda integrado por los siguientes miembros:

- El letrado mayor
- El director de Organización y Recursos Humanos
- La directora de Estudios
- El director de Gestión Parlamentaria
- El director de Sistemas de la Información
- La jefa de los Servicios Económicos
- La jefa de la Sección de Protocolo
- La jefa de la Sección de Prensa y Comunicación
- La jefa de la Sección de Mantenimiento
- El coordinador de seguridad
- Un miembro de la Junta de Personal.

**HAMAHIRUGARRENA. Neurriak jakinaraztea**

Neurri horiek berehala jakinaraziko zaizkie parlamentariei, Legebiltzarreko langileei, Legebiltzarreko taldeetako langileei, segurtasun-koordinatzaileari eta Eusko Legebiltzarreko kontratuen enpresa esleipendunei, eta Eusko Legebiltzarraren webgunean eta Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko dira.

**DECIMOTERCERO. Comunicación de las medidas**

Se comunicarán estas medidas de forma inmediata a las parlamentarias y parlamentarios, al personal de la Cámara, al personal de los grupos parlamentarios, al coordinador de seguridad y a las empresas adjudicatarias de contratos del Parlamento Vasco, publicándose así mismo en la web del Parlamento Vasco y en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

***

***Epe administratibo zein Legebiltzarreko epeak berriro irekitzea***

Diputazio Iraunkorreko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 7ko bileran agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila ondoko erabakia:

"Bertan behera geratu da Diputazio Iraunkorreko Mahaiak 2020ko martxoaren 16an epe administratibo guztiak COVID-19aren osasun-krisiak sortutako egoerarengatik eteteko hartu zuen erabakia. Halaber, bertan behera geratu da Legebiltzarreko epeak eteteko erabakia; ondorioz, epe horiek Erregelamenduak ezarritakoak izango dira berriro. Epeak berriz hartuko dira kontuan 2020ko maiatzaren 11tik. Erabaki hau Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da".

**Diputazio Iraunkorreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

***Reanudación de los plazos administrativos y parlamentarios***

La Mesa de la Diputación Permanente, en su reunión del día 7 de mayo de 2020, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del siguiente acuerdo:

"Queda sin efecto el acuerdo de la Mesa de la Diputación Permanente, adoptado en su reunión de 16 de marzo de 2020, por el que se suspendían todos los plazos administrativos a raíz de la situación creada por la crisis sanitaria de la COVID-19. Igualmente, se levanta la suspensión de los plazos parlamentarios, que volverán a ser los establecidos reglamentariamente. La reanudación de los plazos dará comienzo a partir del día 11 de mayo de 2020. Este acuerdo se publicará en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco".

**La presidenta de la Diputación Permanente**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

***

## DEIALDIAK
## CONVOCATORIAS

***2020ko maiatzaren 8an Diputazio Iraunkorra biltzeko deialdia***
(11/06.50.03.00006)

Diputazio Iraunkorreko Mahaiak 2020ko apirilaren 30eko bileran adierazitako adostasunarekin, lehendakari honek erabaki du Diputazio Iraunkorra 2020ko maiatzaren 8an, 10:00etan, biltzeko deialdia egitea, ondoko gai-zerrenda aztertzeko.

**Diputazio Iraunkorreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**Gai-zerrenda**

1. Lehendakariaren agerraldia, berak eskatuta, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdi egoera eta haren bilakaera azaltzeko, bai eta

***Convocatoria de la Diputación Permanente señalada para el día 8 de mayo de 2020***
(11/06.50.03.00006)

Esta Presidencia con el acuerdo de la Mesa de la Diputación Permanente, en su reunión del día 30 de abril de 2020, acuerda convocar la Diputación Permanente el día 8 de mayo de 2020, a las 10:00 horas, con el siguiente orden del día.

**La presidenta de la Diputación Permanente**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**Orden del día**

1. Comparecencia del lehendakari, a petición propia, a los efectos de explicar la situación de emergencia sanitaria provocada por la

apirilaren 24ko agerralditik aurrera hartutako neurriak azaltzeko ere.

2. Lehenbailehen eztabaidatzeko Eba Blanco de Angulo, Josu Estarrona Elizondo, Maddalen Iriarte Okiñena, Rebeka Ubera Aranzeta eta Unai Urruzuno Urresti legebiltzarkideek egindako legez besteko proposamena, pandemiaren ondorioei aurre egiteko estrategia modu adostu eta partekatuan diseinatzea xede izango duen krisi-mahaia eratu beharrari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.

COVID-19 y su evolución, así como las medidas adoptadas desde la comparecencia del pasado 24 de abril.

2. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley para su debate urgente formulada por Eba Blanco de Angulo, Josu Estarrona Elizondo, Maddalen Iriarte Okiñena, Rebeka Ubera Aranzeta y Unai Urruzuno Urresti, relativa a la necesidad de constituir una mesa de crisis con el objetivo de diseñar, de un modo consensuado y compartido, la estrategia para hacer frente a las consecuencias de la pandemia.

***

***2020ko maiatzaren 15ean Diputazio Iraunkorra biltzeko deialdia***
(11/06.50.03.00007)

Diputazio Iraunkorreko Mahaiak 2020ko maiatzaren 7ko bileran adierazitako adostasunarekin, lehendakari honek erabaki du Diputazio Iraunkorra 2020ko maiatzaren 15ean, 10:00etan, biltzeko deialdia egitea, ondoko gai-zerrenda aztertzeko.

**Diputazio Iraunkorreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**Gai-zerrenda**

1. Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agerraldia, berak eskatuta, COVID-19ak eragindako larrialdiak sortu duen egoeraren aurrean Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak hartutako neurri eta erabakien berri emateko.

2. Lehenbailehen eztabaidatzeko Eba Blanco de Angulo, Josu Estarrona Elizondo, Maddalen Iriarte Okiñena, Rebeka Ubera Aranzeta eta Unai Urruzuno Urresti legebiltzarkideek egindako legez besteko proposamena, COVID-19aren larrialdiarengatik kaltetutako pertsonei gutxieneko diru-sarrerak premiaz bermatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.

3. Lehenbailehen eztabaidatzeko Eba Blanco de Angulo, Josu Estarrona Elizondo, Maddalen Iriarte Okiñena, Rebeka Ubera Aranzeta eta Unai Urruzuno Urresti legebiltzarkideek egindako legez besteko proposamena, COVID-19aren krisiari aurre egiteko neurriek indarkeria matxista sufritzen duten emakumeen gainean izan ditzaketen eragin negatiboak kontuan hartzeari eta hauei irtenbidea bilatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.

***

***Convocatoria de la Diputación Permanente señalada para el día 15 de mayo de 2020***
(11/06.50.03.00007)

Esta Presidencia con el acuerdo de la Mesa de la Diputación Permanente, en su reunión del día 7 de mayo de 2020, acuerda convocar la Diputación Permanente el día 15 de mayo de 2020, a las 10:00 horas, con el siguiente orden del día.

**La presidenta de la Diputación Permanente**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**Orden del día**

1. Comparecencia del consejero de Cultura y Política Lingüística, a petición propia, para informar de las decisiones y medidas adoptadas por el Departamento de Cultura y Política Lingüística ante la situación generada por la emergencia provocada por la COVID-19.

2. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley para su debate urgente formulada por Eba Blanco de Angulo, Josu Estarrona Elizondo, Maddalen Iriarte Okiñena, Rebeka Ubera Aranzeta y Unai Urruzuno Urresti, relativa a la garantía urgente de unos ingresos mínimos a las personas perjudicadas por la emergencia de la COVID-19.

4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley para su debate urgente formulada por Eba Blanco de Angulo, Josu Estarrona Elizondo, Maddalen Iriarte Okiñena, Rebeka Ubera Aranzeta y Unai Urruzuno Urresti, relativa a la toma en consideración de los efectos negativos que las medidas para hacer frente a la crisis de la COVID-19 pueden tener sobre las mujeres que sufren la violencia machista y a la búsqueda de una solución a esos efectos.

***